










1. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Canvas metodoaren bidez hirugarren adinekoei bideraturiko zerbitzua ideia sostengarria dela egiaztatu dugu. **Canvas** metodoa, ideia berritzailea edota sortzailea den jakiteko erabiltzen dugu. **Canvas** metodologia lagungarria da aukeratu dugun proiektua bide onetik garatzen ari garen jakiteko edota proiektu edo azpi zerbitzuen azterketa egiteko.

<p>Funtsezko bazkideak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Meka • Gizarte zerbitzuak • Hornitzaileak • Langileak • Familiak • Hirugarren adineko pertsonak 	<p>Funtsezko jarduerak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bitartekari lana • Produktuen salketa  <p>Funtsezko baliabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Denda fisikoa • Langileak • Auxiliarrak • Saltzeko produktuak 	<p>Balio proposamena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hirugarren adineko pertsonai laguntza teknikoak zaintzaile zerbitzuak eskaini. • Familiarrei orientabidea, txariak... 	<p>Bezeroekin harremanak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Asistentzia pertsonala • Telefono deiak • Web-orria  <p>Kanalak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Denda fisikoa • Web-orria 	<p>Bezero segmentuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hirugarren adineko pertsonak • Familiak • Auxiliarrak • Behar duenak 
<p>kostu egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ibilgetua • Ura, argia, alokairua eta nominak 		<p>Diru-sarreraren iturriak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Produktuak saltzen • Auxiliarrak kontratatzen diru kopuru bat irabazi 		

IBILTZEN S.L enpresa gehiago sakonduko dugu ondorengo puntuetan, eskainiko den zerbitzua azaldu eta bakoitzaren zereginak zeintzuk diren zehaztu direlarik. Sortuko dugun enpresa IBILTZEN S.L da eta hirugarren adinekoei eta hauen familiarrei zuzendurik egongo da, elkarlanean lan eginez erantzun integral bat emango dugu. Bost langilek osatuko dugu enpresa, gizarte langilea, psikologoa eta hiru auxiliarrek. Honela talde interdiziplinarra izango da, non bakoitzak bere gaitasun eta jakinduriarekin erantzun osatuago bat ematea lortuko dugun.

Gaur egun gizartean nagusitzen den aldaketa demografikoa aintzat harturik, hirugarren adinekoen populazioa areagotzen den heinean, kolektibo honetara bideraturik dauden zerbitzuen beharra nabarmentzen dugu. Izan ere, oraindik ikerketa ugari egiteko dauden arloa iruditzen zaigu eta askotan hirugarren adineko eta gaixotasun bat duten norbanakoak bakarrik sentitzen baitira.

Enpresa Azkoitian kokatuko da, bertako biztanleria 11.681koa izanik eta hauetatik 65 urte baino gehiago dituen pertsonak %18,97 (Eustat, 2018) direnez, gure helburua kolektibo honen beharrak asetuko dituen denda eta espazio bat sortzea da. Bertan laguntza teknikoak (gurpildun aulkia, garabia, muletak, etab.), laguntza psikologikoa (hitzaldiak eta asistentzia pertsonala) eta laguntza asistentziala (zainketa pertsonala) eskainiko dira. Gure proiektuaren helburua Azkoitian hirugarren adineko pertsonen erantzun integral bat ematea izango da. Honekin batera familien ongizatea bilatuz.

Bestalde, enpresak helburu orokor bat eta espezifikokoak ditu:

– **Helburu orokorra:** Hirugarren adineko pertsonen eta familiarren laguntza teknikoak, psikologikoak eta asistentziala eskaintzea.

– **Helburu espezifikokoak:**

- 1) Laguntza teknikoak saltzea
- 2) Familiarren zaintzaileak eskaintzea eta zaintza kudeatzea
- 3) Hitzaldiak antolatzea

Alde batetik horretarako langile bakoitzak zeregin zehaztuak edukiko ditugu. Gizarte langileak, laguntza teknikoaren salmentan parte hartuko du eta haren inguruko informazioa eskaintzeaz arduratuko da. Beste alde batetik psikologoak, hitzaldiak eta laguntza pertsonalizatuak eskainiko ditu, bai hirugarren adinekoei eta bai familiarrei, gainera laguntza teknikoaren salmentan ere parte-hartuko du. Azkenik, auxiliarrek, laguntza asistentziala eskaintzeaz gain familiarrei ere hitzaldiak emango dizkie.

IBILTZEN enpresak ondorengo zerbitzu zehatz hauek eskainiko ditu:

- **Laguntza teknikoaren salmenta:** Hirugarren adinekoei zuzenduriko produktuak salduko ditugu. Gurpildun aulkiak, taka-taka, garabia, makuluak, etab. Bezeroek behar dutenaren arabera eskaerara egokituz.

- **Familiarren zaintzaileak eskaini eta hau kudeatzea:** Bitartekari lana egingo dugu, hau da, familiarren zaintzaileak behar dutenean, ditugun auxiliarren eta haren disonibilitatearen arabera zaintza kudeatuko da. Kontrataturiko auxiliarrei Gizarte Segurantzaren alta emanez, kontratuak eta nominak eginez. Familia eta gure enpresaren artean ere kontratua egingo da.

- **Hitzaldiak eskainiko ditugu:** Hirugarren adinekoei eta familiarrei, gailentzen diren gaixotasunen inguruko informazioa eta hauen aurrean hartu beharreko jarrerak azalduko dira.

- **Banakako esku-hartzea:** Esku-hartze psikologikoa eta orientazioa pertsonalak eskainiko dira.

Oso garrantzitsua da enpresaren organigrama zehaztea, izan ere talde kide bakoitzak izango ditugun funtzioak eta mailaketa azaleratuko ditugularik bertan. Ondorengo hau da Ibiltzen enpresaren organigrama:



Langile bakoitzaren funtzioak ondorengo hauek dira:

Piu Suarez: Zerbitzuaren kontabilitatea, zerbitzuaren fakturazioa eta administrazio lanak.

Naila Boujenan: Ordezkarria eta bozeramailea (edozein desadostasunen aurrean berak izango du erantzukizuna) eta laguntzaile auxiliarra.

Itziar Yeregui: Produktuen erosketa eta salmenta, dendako zerbitzuak eskaini eta harrera lanak (email, telefonoa).

Nagore Gil: Langileen nominak, auxiliarren kontratazioak, lan arrisku laboralen prebentzioa eta familiekin zerbitzuen kontratazioak.

Iraide Udabe: Laguntzaile auxiliarra, hitzaldien kudeaketa eta Ibiltzenen publizitatea.